



Groibek Kale

Elgetako aldizkaria urtarrila 64zk.



**Umiak be barikuan
mozorrotuko dira**

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxa: 94 6583061.

Maya ingurugiro taldearen proiektu bi

Urtarrilean izandako hirigintza batzordean Maya ingurugiro taldeak ondorengo bi proiektu hauek aurdeztu zituen.

1 Hrrian energia alternatiboa soartzeko proiektua.

2 Etxeetako oliio bilketa.

Lehenengo proiektuari dagokionez, hau da energia alternatiboaren proiektuaren helburua zera izango litzateke: Herriak dituen errekurso propioak erabilieta probetxua aatera, besteen menpe egon gabe, ingurugiriari kalterik egin gabe eta bizi kalitatea hobetuz. Horren ondorioetariko bat gerora begira, denon politikoetan nabarmenduko litzateke. Helburua, bada, AURREZTEA.

Maya ingurugiro taldea

ZURE ESKUTITZEN ZAIN GAUDE!

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Bertan kezka, iritzi, galdera, etab. adierazteko aukera duzue. Eskutitzak izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NAN zenbakia izan beharko ditu derrigorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inisialak edo gaitzizena agertuko dira. Ez da komeni eskutitzen luzera 15-18 lerro baino luzeagoa izatea. Bidali sobran Goibekokale ipinita edo bota udaletxe azpiko buzoira.

Gurekin internet bidez euki gura badozu hartu-emon, posta elektronikoa: goibeko@topagunea.com

**ESTAMPACIONES
INTXORTA S.A.**



AENOR




Empresa Registrada

ER-07142/96

Betsaide poligonoa 2-B. lur saila. Pabiloi z.k.: B9- B12. Posta Kutxa 106 48230 Elorriko

Tel.: 94 6231914 Faxa.: 94 6231928



Abixadan Angiozarrera aile- gauko dan Abiadura Haundiko Trena

OM ahai gaiñian dakadan AHTan inguru-ko informe teknika leitzen ari naixela, gauza asko datozkit burura. Gauza askon inguruan emoten dittu azalpenak, abixadan Angiozarreraiño ailegauko jakun ondame-nak.

Ba bai, Angiozarren be ikaragarriko eragiña eukiko dau.

Jarri zarie pentsatzen?

Ez dau ez, informe askon biharrik, ondamenak gure eguneroko bizitzan izango dittuen ondorixo kaltegarriak zein diran asma-tzeko.

Informiak trenan ondorixo ekologiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak zein izango diran ondo azaldu eta azpimarratzen dittu. Bai-ña, hau geurera ekarrita, hor dare guk horren-beste maitte dittugun eta betidanik esanahi bere-zixa izan daben leku kuttun, eta oroitzapenez betetaketan egingo daben kaltia.

Kaltia?

Apurtu eta desagertzera ailegauko dira gure paraje, zelai, baserri eta basuak.

Zertan hasiko gara ba orduan informiak aitta-tzen eta honek informiak diñuena errepika-tzen?

Ez dau ez, guk sentitzen doguna senti-tzia baiño informe tekniko perfektuarik, ez jatzue pentsatzen?

Ainhoa Larrañaga



Berriro be...

Berriro be izan dabe aberixia Ertamerikan eta Indian. Gutako batzuk dana menpian dauka-gulakuan gaoz, baiña natura ez dogu oinndiok menpian hartu eta noizian behin holako aberixak egitten dosku.

Txarrena da ixa beti behartsuenen etxian tokatzen dirala aberixok. Eta naturak egindda-kuak gutxi balira hanka bikuok be dexentia egit-ten dittugu aberixok haundixauak izateko; edo behintzat ez doguz egin biharrekuak egitten abe-rixon eragiña gutxitzeko.

Izan be Guatemalako inguru horretan etxiak bihar dan moduan, eta bihar dan lekuan egindda egon izan balira ez zan halako triskan-tzarik gertauko, baiña han be, listua ugari eta erraz samar jausten diran etxiak errazago egitten direnez, eta merkiago, bada nahikua da hola-kuak egittia. Gero lur ikara gertatzen bada natu-rak daka kulpia, edo Jangoikoaren kastigua izango zan (Honek be makiña bat kulpa hartzen dittu).

Eta aberixia izan eta gero hor hasi gara aberatsok zeinik baiño zeinik lehenago eta gehi-xago lagundu. Hain urrin fan barik be nun lagundu egongo da, baiña telebisiñuan halako gauza tristiak ikusi eta gero errazago emoten da dirua urriñerako. Gaiñera holaketan oso inpor-tantia izaten da mundu guztiak jakitzia geu zela-ko onak gazen.

Bittartian, Iraken, esate baterako, gau-zak gaizki dagoz, baiña han, nunbait, euren kul-pia da gorrixak edo batek daki zer direlako, eta horregaittik telebisiñuan be ez doskue hango berririk emongo, eta ez dogu errukittu biharrik izango.

Jabier Arantzeta

GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Goibeko K. E. Salbador kalea 2. Elgeta 20690. **Zuzen-daria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erostarbe, Bittor Gallastegi eta Igor Arizmendiarieta. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandalu-niz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susa-na Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Izaro Arrazola Oihana Sara-tua eta Esti Askasibar. (Tel: 943789085). **Banaketa:** M. Elena Eztenaga, Ikastola. Tirada: 700 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati).

Copyright-a: Goibeko k.e.

Lege-Gordailua: SS-475/95. ISSN: 1135-3538.

E-mail: goibeko@topagunea.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

kutxa *gizarte-ekintza
obra social*



Eusko Jaurlaritzako
Kultura sailak diruz
lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek
Elgetako Udalaren
laguntza jaso du

Goibeko
k.e.
Tel. 943 78 90 85
Salbador 2, Kultur Flxea
goibeko@topagunea.com

Aldizkari honen
argitaratzailea



Gipuzkoako foru
aldundiak diruz
lagundutako aldizkaria

Patxi Basauri 25 urte alkate

Eibarko Udaletxearen oroigarria jaso zuen gure alkateak

Patxi Basurik 25 urte beteko ditu laister herriko alkate moduan. Lau era desberdinetan izan dugu alkate. Hasiera batean jendeak bultzatuta, popular eran egin zen alkate. Ondoren EAJ, EE eta HBko jendeak osatutako talde Independentearen txanda etorri zen. Talde hau desagertzean, EAJk egin zion proposamenari baiezkoa eman zion. Hasieran independente modura eta azken urteetan EAJren barruan.

Alkatetzan 25 urte betetzen dituela eta Eibarko

Udalaren oroigarria jaso zuen urtarrilak 25ean. Bi Udaletxe hauek aurrera eramaten lagundu duten "Elgeta eta Eibarko Toponomastika" liburuaren aurkezpena bukatzean. Bi Udaletxeen arteko harremanak oso onak direla eta Udaletxe bien arteko anai izateko proposamena egin zuen Patxik oroigarria jaso ondoren. Eibarkoek gustora hartu zuten proposamena. Eibar eta Elgeta anaikidetzeko ekitaldirenbat egitea mahai gainean dago jadanik.



Alkatea Eibarko Udaletxeak eman zion oroigarria hartzen.

Juan San Martin: "Elgetan, auzo, baserri eta baselizen izen interesgarriak daude"

Urtarrilak 26an, 30 lagun inguru batu ginen liburutegian, "Eibar eta Elgetako Toponomastika" liburuaren aurkezpenean. Liburuan Elgetako Toponimoei buruz zer aurkituko dugun jakitzeko asmoz. Liburu aurkezpena eta gero Juan San Martinekin egon ginen.

- Zer da liburuarekin adierazi nahi duzuna? Batetik dauzkagun sustrai, hitz eta izen aberastasuna. Bestetik nik aztertutako agiriaetatik ateratako Elgetako ermita eta baserri izenak ere aztertzen dira liburuan.



Elgetako izenei buruz aritu zen Juan San Martin liburutegian.

- Zer berezitasun dauka Elgetako toponimiak? Beste leku batzuetan

bezalako berezitasunak. Zalantzarik gabe auzo, baserri eta ermita izenak interesgarriak dira. Denak begiratu behar dira hizkuntza, histori eta geografiaren arteko harremana ikertzeko. Lehenago hizkuntza nolakoa zen adieraziko digu toponimiak.

- Liburuaren helburuetako bat izen hauek ez galtzea izango da... Horixe! Aintzinako izenak eta mantentzeko erak bilatu behar dira. Esaterako: toki izenei, kalieei, plazeei izen honek emanez.

GRUPO
IFA
Produkturik onenak,
prezio onenean
Tel: 76 80 98.
ALDI

Andoni Bolinaga
METALAK
FS7 18
Tel - Fax 76 80 64
ELGETA

Goibeko bailarako egutegiak banatzen

Gerra Garaiko Elgetako erretratua dago egutegian

Goibeko Elkarreak bailarako beste euskara elkarrekin batera, erretratu zaharren egutegia argitaratu du. Goibekoko bazkideek Udaletxean eta liburutegian eska dezakete egutegia. Bazkide ez diren toki hauetan, egutegia hartu eta bazkide egiteko aukera izango dute.

Egutegia eskuratzea nahi duenak liburutegian edo udaletxean lortzeko aukera izango du. Bazkide ez diren ere izango dute egutegia eskuratzeko aukera 500 ptaren truke.

Bestalde, Goibeko K.E.ko talde eragilea, bazkideei telefonoz bazkideztza berriztatzeke asmorik duten galdezka ari da. Dei asko egin dira jadanik eta bakarren batek ezetza eman badu ere, gehiengoak barriztatzea egin du. Bazkideztza berriztatzerakoan kontu korronteko zenbakia eskatuko zaie, errezagoa izan dadin. Bazkideztza-aren kostua 4.000 ptakoa izango da aurten ere, eta laguntasun horri esker, elkarrekin, parte hartzen duen proiektu desberdinak aurrera eramaten lagunduko du. Bailarako

Goibeko Kultur Elkarreko bazkide direnek Deba Goineneko 2001.eko egutegia dohainik eskuratzeko aukera izango dute. Egutegi hauek banatzen gabonetan hasi ziren Goibekokoak plazan, baina oso jende gutxi izan zuen orduan egutegia hartzeko aukera. Bertan, bailarako herrien erretratu zaharrak agertzen dira, hainbat herritako lekuak lehendik hona zelako aldaketa izan duten erakusten.



San Antonioko jaiaren eguna falta bada ere gainontzeko jai egunak ere markatuak ditu egutegiak. Argazkian 1936an bonbek egindako lana ikus daiteke.

telebista eta astero etxetan jasotzen den Goienkaria adibidez. Goienkaria egunerokoa izatea nahi da, herrian GoiTB bailarako telebista ikusteko udaletxearekin dauden arazoak konpontzea eta etorkizun ez urrun baten, sare telematikoa eta irratia lantzea.

Bazkideztza berrizteko beste bide bat, egutegiaren bila joandakoan kontu korronteko zenbakia ematea da. Egutegia eskuratzea nahi duena bizkor ibili dadila, laister bukatuko dira eta.

Etxe berriak eraikitzen hasteko gertu

San Roke kaleko etxebizitzak eraikitzeke lanak hastear daude Eibarretik datorren bidearen desbideraketa lanak amaitu eta gero. Bertan izan diren arazoak konpondu direnez, berehala hasiko dira etxeen eraikuntzarekin. Lur sail horretan, fase bitan banatzen diren 27 etxebizitza jasoko dira. Lehengo fasearen hasierak luze jo duenez, fase biak batera eraikitzeke asmoa dago. Lehengo faseko etxebizitza guztiak salduta daude eta bigarren fasean bakarren bat besterik ez da falta saltzeko. Datorren urteko abendurako fase biak amaituta egotea espero da.



Etxeak eraikiko diren lur ingurua prest dago lanak hasteko.

"Lagun Artea" errota berritzekotan

D i p u t a z i o a k 2.000.000pta. emango ditu laguntza moduan, Izuzigarra auzoan kokatua dagoen Lagun Artea errota konpontzeko. Aspalditik dator errota hau berritzeko asmoa. Diru laguntza jasotzeko uztail amaierarako lanak hasita behar dute izan.

Uberatik Elgetara bidean, auzoaren bukaeran, ezkerreko pista hartu behar da errotarantz gerturatzeko. Errota Albistegi, Urrejolaegi zaharra, Urrejolaegi erdikoa, Olaegi handi eta Olaegi txiki baserrien aurrean kokatzen da. Momentu honetan, Lagun Artea errota da

herrian zeuden 12 errotetatik funtzionatzen duen bakarra. Errotak Errakazabaleko urak erabiltzen ditu, barruan dauzkan harri pareta eta bi burdinazko kapeteak mugitzeko. Errotatik gora erreka jarraituz gero presa txiki bat dago.

Udaletxeko apa-rejadoreak, errotan egin beharreko konponketak aztertu ditu. Konponketa hauek egiteak 5.825.405 pta.-ko aurrekontua izango du. Aipatu beharrekoa da, ordea, duela gutxi Diputazioko teknikaria eta errotak konpontzeko enpresa bateko teknikaria egon direla errotan egin



Lagun Errota kanpotik ikusita.

beharreko konponketak aztertzen. Teknikari hauek egingo duten aurrekontuaren zain dago Udaletxea, lanak hasteko. Kontuan izan behar da, Diputuzioak 2.000.000 ko diru laguntza emango duela baldin eta lanak uztail amaierarako egiten badira.

Errotan egingo dien konponketa nagusiak: teilatua konpondu, kanpoko eta barruko paretak konpondu, errekatik ura hartzeko sistema berritu, errotako makinariaren errebisioa, gaizki dauden piezen aldaketa eta errota margotzea izango dira.

Momentu honetan, Lagun Artea errota da herrian zeuden 12 errotetatik dabilen bakarra

INAKI JATETXEA

Leku paregabea,
eguneko menua
Tel: 943 76 82 83

OSTATU JATETXEA

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA

Eguneko menua 800 pzta.
Karta.

IRAMA
ELEKTRIZITATEA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
tel. mugikorra: 619692336
tel: 789057-768025

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

Mozorroa ganbaratik jeisteko ordua iristear

Otsailaren 17an "Big Lie Tourra" iritsiko da Elgetara

Gaztetxearen bosgarren urteurrena gerturaten ari da. Martxoko alean eman go dizkizuegu urteurrenari buruzko nondik norakoak. Bitartean herriko gazteek lanean dihardute, herritar guztiei otsailerako mozorro festa eta "Big Lie Tourra" antolatu dituzte. Adin guztietako jendea ekitaldietan parte hartzera gonbidatu nahi dute herriko gazteek.



laz errezoekin hasi zuten gaua, eta aurten?

Otsailerako ekintza desberdinak antolatu dituzte Gaztetxeok. Otsailak 17an, zapatua "Big Lie Tourra" izango da Gaztetxean. Ikuskizun hau Euskal Herrian zehar ibilaldia

egiten ari da. Arratsaldean Fanzine postua, grafitilariak eta laburmetraiak izango dira. Gaueari Poe-

sia emanaldi batekin emango diote hasiera. Ondoren kontzertua izango da. Eta gauari bukaera

"DJ KIR-IN"ek emango dio.

Mozorro festa

Otsailak 24rako mozorro jaia antolatu dute. Azken urteetan ihauteri barikuak adin desberdinetako jendea batu du kaleetan. Arratsaldean haurrak eta gauean gazte eta helduen ordua iristen da. Afari herrikoa izango da lehendabizi Bolatokian, txartelak saltzen daude Haizean. Jaialdian parte hartuko duen musika taldea sorpresa da. Badakigu ordea dantza egiteko bezalakoa izango dela. Mozorroak ganbaratik jeisteko ordua iristen ari da.

Bertso saioa antolatze-ko bilera

Urtarrilak 2an, iluntzeko 20:00etan bertso jaialdia antolatze-ko bilera izango da Udaletxean. Bileran bertso jaialdia egiteko eguna, bertsolariak eta aurrerantzean egin beharreko bileren egutegia zehaztuko da.

Azoka Nagusiko jaiak antolatze-ko bilera

Urtarrilaren 31an izan zen 2.001eko jaiak antolatze-ko lehenengo bilera. Bertan herriko elkarte ezberdinetako kideak batu ziren. Jai Batzordeak aurrerantzean egingo diren bileren berri emango du kalean jarriko diren kartelen bitartez.

"Espaloia gustokoena"

Kultur Batzordeak, auditorium berriari izena jartzeko aukera eman zuen, gabonetan egindako tanborradari buruzko erakusketan. "Espaloia" izena izan zen herritarrek auditorium berrirako aukeratu zuten izena.

Pello Zabalaren hitzaldia

"Naturaren mintzoa"

Otsailaren 15ean, eguna 19:15ean
Herriko kultura etxean

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel 768078

Zer pentsatzen jatzu behi zoruen kontua?




Ramiro Litago
Bihargiña (55 urte)

Momentuz Ez nau bape arduratzen, ze urte askuan noia zaldixan haragixa jaten. Nik ez jan arren oso inportantia dan gauzia pentsatzen jata, ia ez dakigu zer jaten dogun be eta.

Uste dot danoi arduratzeko gauzia dala. Neri behintzat asko ardura dozta, ze haragi asko jaten dot. Uste dot konfidantza pixkatekin juan bihar zala karnizerixara. Neretako arazua alimentaziño industrialian dago eta denboriakin haragixa ez dan beste danetan be azalduko da.

Julen Jñarra
Bihargiña (41 urte)



Jñaki Gillegi
Bihargiña (59 urte)

Nik gauza guztietatik bardin-bardin jaten dot, gaiñera dana be ez dot sinisten. Uste dot gu garela nahiko "locos" eta ez behixak bakarrik. Baiña uste dot jente askok atzera egin-go dabala askotan honekin folloi guztione kin.



Elena Zubizarreta
Etxekandiña (58 urte)

Neretako urte askotan datorren gauza bat da eta uste dot jente askok lanian dakan arduragabekerixiagaittik dala. Ez dakigu beterinari-xuak eta zeri begira dabizen.

Uste dot beldur gehixegi sartzen dabizela egixan zatitxon bat egon arren. Baiña ardura-tzekua izan arren ez dot uste hainbesterako danik. Gaiñera oiñ trankiltxuau jan ahal izan gou, ze oiñ kontrola-uta egongo da.

M^o Karmen Cufierrez
Bihargiña (53 urte)



Hainbesterako ez dakit dan baiña inportantia danik ez dago dudaik. Eta berdin konsumidu arren uste dot danok dakauela berdiña buruan. Arazia oso haundixa da.

Bakarne Otxoa
Bihargiña (34 urte)



Kopu bat

Kartetan jokatzeko giro egokia

Tel: 768093

P a t x i T a b e r n a

Aintzane denda

zugandik gertu behar duzun beste

Domingo Iturbe 4-behea Tel: 943 768297

David Peñalver

Bihargiña eta txiste kontalaria (23 urte)

Zertan egitten dozu lan? Elkoron, dekoletajian.

Denbora librian zer egitten dozu? Ahal dala deportia eta batezbe pelotia.

Kolore bat? Urdiña.

Usain bat? Maximo Dutti.

Ametsik badakazu? Ez, bapez.

Bizitzeko leku bat? Elgeta kotxiakin.

2000.urteko berririk onena? Erreala salbatzia.

Ondo pasatzeko leku bat?

Durango.

Txikitako oroitzapenik?

Errealeko bazkide egin nitzaneko eguna.

Aste bukaera bat zein-ñekin pasako zifñuke?

Lagunekin.

Iñoiz ez dozun ahaztuko irudi bat?

Elkoro azpitxapeldun geratu zanakua.

Pelotaririk gustokuen? Etxaniz.

Pareja bat? Etxaniz-Elkoro.

Zelakuak izan biar dira zure lagunak?

Berezitasunik barekuak, normalak.

Gustokua dozun izen bat? Amaia.

Zein da gustora entzuten dozun musika bat?



Danetik pixkat.

Aholku bat eguneroko bizitzarako?

Norberan lana egittia eta iñon kontutan ez sartzia.

Zelan ikusten dozu Goienkarixa?

Ondo.

Txiste berdiak ala normalak?

Momentuak agintzen dittuanak.

Ligatzeko formula? Oindio ez dot topau.

Pelotatik zer da gustatzen jatzuna? Bertako girua.

Definidu ikusten dozuna ispillu aurrian jarritakuan?

Grano askodun tipo bat eta gaiñera ezin dianak kendu.

Moterik badakazu? Zein edo zeintzuk? Maiz

Elgetan eta Peña Bergaran.

Gomendatu disko eta irrati saio bat. Diskua, ACDC-en

"Ballbreaker" eta irrati saia, Radio Popularreko

Iñaki Mujikaren saia.

Bizitzan egitteko falta jatzun zebait? Pelota partidu gehixau jokatzia.

Zuretako zer euki bihar dau neskiak sexyxa izateko?

Jatorra izatia.

Zeini egingo zontzake hola-ko entrebista bat? Nere amari.



Oskar Carrascal: "Herritarren irizpideen arabera jardungo dugu"

Kirol teknikari lanetan hasi berri da arrasatear gazte hau. Soin Hezkuntzan lizentziatua, Bartzelonan Master bat, eta Psikomatrizitatean diplomatua ere bada. Lanean hasi zenetik, lehendik zeuden gabeziak "tapatzen" jardun duela dio.

Kirol azpiegiturei dago-kionez, ondo egokituta al dago herria?

Azpiegitura badu, baina nahiko egoera kaskarrean. Oso nabaria da urtetan zaindu barik egon dirala. Beharren zerrenda egiterako orduan amaigabea dela konturatzen zara. Gauza txiki asko daude egiteko, eta horretaz gainera, inbertsio gogorra eskatzen duten pare bat proiektu ere bai; hala nola, frontoiko teilatua berriztatzea, eta kanpoko kantxa argiztatzea; izan ere, "Eskola eta Kirola" programan dabil-tzan neskak gaez entrenatzen dute eta baloia ere ez dute ikusten.


Frontoiko teilatua eta kanpoko kantxa argiztatzea dira proiektu garrantzitsuenak. Baina egongo dira beste batzuk...

Bai. Aipatutako gauza txikiei emango diegu lehen-tasuna: gimnasioa pintatu

eta hezetasunaren ondorioz horren labankorra egoten den lurra behar den bezala ipini beharko dugu; izan ere, kirola egiten dutenen segurtasuna bermatu behar dugu beste gauza guztien gainetik. Aldagelak, Squash-eko ormak konpondu... gauza asko dago egiteko.

Elgetan kirolik egiten da?

Egia esan oraindik ez ditut herritarren zaletasunak ezagutzen, baina denbora asko igaro baino lehen ezagutzea espero dut. Nik daukadan informazioaren arabera, lehen askoz ere kirol gehiago



Oskar Carrascalek herrian kirola dinamizatzea du helburu nagusi.

egiten zen. Instalazioak gehiago erabiltzen ziren. Azken bost edo sei urtetan behera egin du insta-

lazinoen erabilerak. Kirol gutxi egiten da. Gure erronketako bat herritarren kirol zaletasuna berreskuratzea da.

Oso nabaria da urtetan zaindu gabe egon direla instalazioak. Inbertsio txiki askoz gain, frontoiko teilatua berriztatzea eta kanpoko kantxan argiak ipintzea pentsatzen du Udaletxeak

Zein asmo daukazue epe motz, ertain, eta luzera?

Hasi berria naiz, eta orain arte egin dudana gauza bakarra lehendik zeuden gabezia guztiak "par-txe-atzea" izan da. Egunero-ko gauzak aurrera eramateko ahaleginean nabil,

ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETATA ETA
ELJAZIO SISTEMAK

Berraondokua z/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

IBAIBA-
RRIAGA

GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

E
HARATEGIA

A
S
T

San Roke 6
tel: 768168.

eta ez dut epe luzerako plan bat egiteko astirik izan. Kirolarekin lotura eta interesa daukaten guztiakin batzarra egingo dugu laster, eta euren irizpideen arabera hartuko du erabakia Udalak. Batzar horretan erabakitakoaren arabera, plan bat edo bestea egingo da. Epe laburrera, berriz, ezinbestekoa da instalazioak egokitu eta ahalik eta erabile- ra handiena euki dezaten zerbitzuak abian jartzea.

Zein adinetako jendeari zuzenduak egongo dira zerbitzu horiek?

Bi adin multzoren parte hartzea nahiko bajua dela uste dut. Alde batetik, Eskola eta Kirola programa amaitu eta kirola egiteari uzten diotenak, 14 eta 16 urte bitartekoak daude, hain zuzen. 14 eta 22 urte bitarteko herritarrek ez dute kirol eskaintza berezirik. Bestetik, 6-8 eta 10-12 urteko gazteek ere ez dute zerbitzu bere-

zirik. Bi multzo horiei kirol eskaintza ematen saiatuko gara.

Zer eskatu dizu Udalak?


Jakin badakit esfortsu handia egin duela kirol teknikari bat kontratatzen. Herria txikia da, eta aurrekontuak horren arabekoak dira. Herrian kirola dinamizatzea eta bertoko instalazionetaz eta zerbitzua eskaria kudeatzea eskatu didate. Azken finean, kirola egin nahi duen herritarrari aukera egokiak ematea.

Herrian kirolean murgilduta dauden zenbait talde daude. Hala nola, pelota elkarteak, umeekin lanean dabilen gurasoak... hartu- emanik izan duzu?

Kirolean murgilduta dauden pertsonak ezagutzen ditut, gutxi gorabehera. Esaterako, Eskola Kirola programa abian baldin badago gurasoei esker da. Eskola Kirola kontseilua

eratu berri da Elgetan. Foru Aldundi, Udala eta eskolaren artean hitzarmen bat egin behar da proiektua sendotzeko. Orain arte gurasoak izan dira Eskola Kirola programa aurrera eramanean dutenak, eta euren lana ezinbestekoa izango da etorkizunean ere. Programa horren koordinatzailea ni izan arren, euskarri eta oinarri eurak dira. Eurak nahi duten arte parte-hartuko dabe.

Elgetan ezer gutxi egin da kirolaren inguruan azken urteotan. Behar bada aipagarriena futbito txapelketa izan da. Aur-



Gehienbat ezinduekin lan egin du orain arte arrasatearrak.

ten antolatzeke asmorik badago? Beste txapelketarik antolatuko da?

Areto futbola Aste Santu ostean antolatzeke asmoa daukagu. Deba Goienerako kirol zerbitzuak antolatzen dituen kirol txapelketak egiteko aukera ere eskaintzen da. Bestelde, "Eskola Kirola" programaren barruan egingo dugun ahaleginaz gain, oraingoz ez daukagu beste ezer egiteko asmorik.

Mendi museoa egiteko proiektua zelan doa?

Herri mailako proiektu garrantzitsua da. Kirol kutsua duen heinean ni ere inplikaturik egongo naiz, baina beste esparru askok ere parte hartuko dute.



"Areto futbola Aste Santu ostean antolatzeke asmoa daukagu."

"14 eta 22 urte bitarteko herritarrentzat eskaintza berezia emateko baimabideak ipintzen saiatuko gara"

Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak Sukaldeak
Etxaurreak Komunak

Otzango Behetxoa Baserria. Tel: 860156

Arrakastatsua gabonetako haur pilota-jaialdia

Gipuzkoako pilota-herrikoirako sailkatze fasea antolatuta

Abenduaren 30ean, zapatua, jokatu ziren urtero Elgetan antolatzen den pilota txapelketako azkenak. Batzuen eta besteen urduritasunen artean, bost final izan genituen, haur-maila bakoitzeko partidu bat. Lehenengoak jokutzen, aurrebenjaminak izan genituen, Iñaki Olaortua izan genuen irabazlea. Benjaminen mailan Odei Zenitagoia. Nesketan Nagore Morales izan zen nagusi. Gero nagusitxoagoen mailan, alebinetan Andoni Elortzak eraman zuen txapela. Azken partiduan,

infantiletan, Eneko Ormaetxea izan zen nagusi. Sariak denentzako izan ziren. Espero zen arren, Aitor Elkorok ezin izan zuen etorri sari banaketara. Hauen Ordez Oskarbioko pilotari diren David Peñalver eta Xabier Uberak banatu zituzten sariak.

Gipuzkoako pilota txapelketa herrikoia

Federatu gabe pilotan aritzen diren pilotazalei irekia dago txapelketa. Gipuzkoako hainbat herritan bezala, Elgetan ere kanporaketa bat joka-



Antolatu den hirugarren txapelketa izan da gabonetakoa.

tuko da. Herri bakoitzeko bikoteen artean jokatu-ko dute lehendabizi, bertan irabazle bat aterako delarik. Herri bakoitzeko

irabazleak, beste herrieta-ko bikoteen aurka beste fase batean arituko dira gero.

Futbito txapelketa inoiz baino beranduago hasiko da

Normalean garai honetarako hasia egoten den futbito txapelketa, aste santua eta gero espero da hasia. Kirol teknikariaren esanetan, talde ezberdinekin bilerak aste santu aurretik egiten hasiko dira. Horretarako oharrak jarriko dira edo eta taldeengana zuzenduko dira.

Aerobikeko monitore ikastaroa Elgetan

Deba goieneko kirol teknikariek, Aerobikekeko monitore titulu ofizial eta homologatua eskuratu nahi dutenentzako ikastaroa antolatu dute. Eskolak Elgetan izango dira asteburutan. Bete beharreko baldintzak, 16 urte beteta izan edo DBHko 2.maila gauditua izatea. Epea otsailaren 5ean amaituko da. Argibide gehiago Deba Goieneko kirol zerbitzuetan.

Eskola-Kirolekoak saskibaloian dihardute

Gabonetako geldialdia eta gero saskibaloiarekin hasi dute hurrek Eskola-Kirola. Bi taldek jokatu zuten eta biek garaipen bana lortu zuten Bergarako taldeen aurka. Mutile taldeak izugarritzko jipoia eman zion Bergarako Mariaren Lagundiko taldeari. Talde mistoak ere irabazi egin zuen baina alde txikiagoa izan zen.

HAIZEA

TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.
Tel: 768256



Jesús Mari Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK
Artekale 3.
Mo: 656783299 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN

Deba goieneko Mankomunitateko Kirol zerbitzuak Elgetan banatu zituen urteroko sariak

Aurrez pala masterreko partidua eta fronteniseko finala jokatu ziren


Hilaren 20an izan ziren Deba goieneko kirol zerbitzuak urtero antolatzen dituen pala, squash, tenis eta frontenis txapelketetako sarien banaketa. Sarike-taz gain, aurtengo urterako Deba Goieneko kirol zerbitzuak antolatu duen kirol jardueren aurkezpena ere egin zen. Iaz bezala, Deba Goieneko hainbat herritan jokatuko dira txapelketak. Lehenengo aldiz, Elgetan pala txapelketako zenbait partida jokatu dira herriko pilotalekuan. Deba Goienean bizi den edonork hartu dezake parte edozein txapelketetan. Partiduak herri ezberdinetan jokatu dira, instalakutuz arbera. Partehartzaileak, puntuak batzen joango dira beraien kirol-modalitatetan eta urte amaieran rankin bat egingo da. Txapelketa amaituta puntu gehien lortu duena izango da irabazlea.

Elkoro anaiek Elgetako pala masterra irabazi zuten

Mikel eta Enrike Elkorok, Deba Goieneko pala txapelketan esku hartu ez arren, Elgetako pala masterra jokatzeko aukera izan zuten. Ez zuten aukera galdu eta irabaztea lortu zuten. Txapelketa hau ligaska erara jokatu dute lau bikotek. Elgetarrek, jokatu zituzten hiru partidua irabazi dituzte arazo handirik gabe. Gainditu zituzten hiru bikoteak gainera, urte osoko rankineko hiru lehenengoak izan ziren. Deba goieneko hiru onenak teoriarik. Bestalde, egun berean fronteniseko azkena jokatu zen. Lehendabiziko bi bikoteak berdinduta zeuden puntuka. Partida honen ostean bikote irabazlea rankineko buru ipini eta ondorioz irabazle izan zen.



Deba Goieneko kirolari, zinegotzi, kirol-teknikariak... denak elkarrekin.



Mikel eta Enrikek alkatearen eskutik jaso zuten saria.



**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009

**Hozkailuak eta
izozkailuak
aire giro-
tua.**



Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46


SISTECO
erraminta makina
Juan Luis Berechinaga
Elgeta 20690 Pagatza Parke Ind. 2, B

Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.



TABERNA
BARNA DEROKUA
DATEKAL

tel: 768273



7
L
E
A
P
A
9
N
D
E
9
9
A

**M^a
ESTHER**

Tel: 76 81 67

Mendian ibili diren behiak dira, pentsurik apenas jan dutenak... badakigu gaitza nondik nora etorri den?

Behi eroen gaitza dela-eta, makina bat kontu entzun eta irakurriko zenuten baina egunero-egunero, albiste berriak sortzen dira gure etxe inguruan. Ondorengo lerroetan azken urteetako gai honi buruzko kronologia eta azken egunetako gertakari batzuk kontatuko ditugu.

Gaitzaren Kronologia

1.982-83: abere okelaz eta hezurrez irin eta pentsuak egiteko modua aldatu egin zen Britainia Handian, eta, ondorioz, gaitza desegin eta bereizteko tenperatura jaitsi egin zen. Ardien arteko priona -scrapie gaitza sortzen zuena- ez zen desagerrarazi eta pentsuetara pasatu zen.

1.985eko apirila: Ingalaterrako baserri batean behi eroen lehen kasua agertu zen, behien eztzefalopatia esponjiformea deitu zioten. 1.986ko otsailera bitarte beste bederatzik kasu atzeman ziren behi talde berean.

1.988ko ekaina: Britainia Handiko gobernuak ofizialki deklaratu zuen gaitza, Entzefalopatia Espongiformea.

1.988ko uztaila: abere okelaz eta hezurrez egindako pentsua debekatu zuten Britainia Handian, 1.994an Europa osoan.

1.989-90: Britainiako gobernuak behien burmuinak, bizkarrezurra eta beste deusezteko agindua.

1.990ko maiatza: Creutzfeldt-jakoben gaisotasuna epidemiologikoki aztertzeke egitasmoaren hasiera Britainia Handian.

1.995eko urria: Creutzfeldt-Jakoben gaitzaren aldaera berriaren bi kasu B.H.an

1.996ko apirila: gaixotasunaren aldaera berriaren lehen kasua Frantzia.

1.997: bizkarrezurraren haragiaren debekua ezarri zuten B.H.an.

2.000ko urria: Europako Batasun osoan behien elementu arriskugarriak eliminatzeko agindua.

2.000ko abendua: abere okelaz eta hezurrez egindako pentsu eta urina behiei eta animaliei emateko debekua. 30 hilabetetik gorako abelburuak hiltzeko agindua analisisa gainditu ez badute.

Harridura eta kezka nafarroako abeltzainen artean. 2.001ko urtarrila

Zientzilariei ikerketa serioak eta sakonak eskatu dizkiete gaitzaren jatorria eta transmisioa argitzeko. 1.990etik abeltzainen elkarteak "ASPINA" k, euskal arraza hobetzeko egitasmoa aurrera eraman du eta gaur egun 16.000 abelburu gorri daude Euskal Herrian, gehienak Nafarroan.

Bertakoa eta bertako produktuekin hazitakoa Nafarroako Haretxeak eta behi gorrien elkarteak (ASPINA) behin eta berriz azpimarratu du kalitatezko eredutzat. Behi kutsatuen jabeak elkarteko kideak dira eta janaria teoriar inguruko soro eta zelaietatik ateratakoa. Ziur gaude ez dela pentsurik erabili? Abeltzainek behi gorrieran alde egindako lan guztia pikutara? Noizarte gai honekin?

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

Tel: 76 81 31

M^a Jesus Arrazola

VIVO

Janari

denda

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxes: 768243

TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK



Erretratua: Maite Mandaluniz

Kuadrillia elegante

Domekatan mezatara juateko elegante jazten ziran herriko gizon eta emakumiak orduan be. Elkarteren bateko eguna edo herriko jaixetako bat zanian be domeketako erropekin kalera. Ondiokan be holan ibiltzen gara danok, hau ohitturioi ez da galdu. Alkandoria ondo plantxau eta kalera, bazkaldu aurreko bermuta eta ardua hartzera. Rabatxo batzuk badare ondo baiño hobeto

Argazkixa plazako itturri onduan etara zeban honek gizon kuadrillioneek. Hala eta be, hau egunoi ez zan beste egunak modukua. Ez dogu jakin egun zehatza, baina kuadriliak bazaukan zeozer ospatzeko. Ez daki-gu herriko jaixetako bat ala elkarteren bateko eguna zan. Bergarako tanboliñerua argazkixan ataratzia eta gizonetako batzuk kolkuan jarrita dauken larrosia egun berezixa zanan seinale dira.

Atzian ezkerretik eskumara: Jesus Larreategi, Bergarako tanboliñerua, Ezezaguna, Julio Panaderua, Simon Sarasketa, Juan Torrekua, Jose Luis Telleria eta Felipon Martintxonekua.
Aurrian ezkerretik eskumara: Anizeto Aranzeta, Pedro Karnizerua eta Anton Porru.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
 Tel: 768075-6 768225
 Faxe: 768201




HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
 ESKOPETA EGILEA

Dzan Goibeko elkarteko bazkide

2001ean bazkide zarien guztiok egutegi bat
jasotzeko aukeria izango
dozue



Egutegi honetan
topauko dozuz zure
herriko zein Deba
Goieneko jai guztiak, erretratu
zaharrak, ilargixan gorabeherak...
Bazkidiok duan, gainontzekuak 500 peze-
taren truke

Bazkide barrixak egitteko, bazkidetzak barrizteko eta egu-
tegixak jasotzeko jua Udaltxera edo Liburutegira otsaila
amaitu baiño lehen.

Bazkideoi eskerrikasko gure proiektuak aurrera eruatzen laguntzea-
rren. Goibekokale, Goienkaria, Goitb... Zuei eskerrak dare plazan.